



Sopelako Udala  
Ayuntamiento  
de Sopela

## ALKATETZAREN DEKRETUA

Euskara ikasteko diru-laguntzak emateko udal Ordenantza Arau-emailean (2010eko irailaren 21eko 182 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala) adostutakoa ikusita.

Oinarria: Sopelako Udalaren diru-laguntzak ematea arautzeko Ordenantza Orokorra (2016ko abenduaren 23ko 243 zenbakiko BAO).

Oinarria: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 17.2. artikuluan, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Legearen Erregelamendua onesteko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 58.1. artikuluan xedaturikoa.

## EBAZTEN DUT

LEHENA.- Onartzen da euskara ikasteko diru-laguntzak emateko 2018. urteko deialdi publikoa.

BIGARRENA.- Eskaerak ikastaroa egiten den urteko uztailaren 1etik azaroaren 30era bitartean aurkeztuko dira.

HIRUGARRENA.- Diruz lagundu ahal izango diren eskaeren artean gehienez 6.258,25 Euro banatu ahal izango dira. Gastua 02 335 48000 partidaren kontura egingo da eta deialdi honetako diru-laguntzak finantzatzeko sortu da.

LAUGARRENA.- Diru-laguntza hauek Euskara ikasteko diru-laguntzak emateko Udal Ordenantza Arau-emailean adostutakoarekin kudeatuko dira.

BOSTGARRENA.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Alkate Jaunari, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epearen barruan. Nahi izanez gero, zuzen-zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, dagokion txandagatik egokitzen den horretan; errekurtso hori jartzeko epea 2 hilekoa da jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Sopelan, 2018ko irailaren 13an

Alkatea  
Idazkaria